

AURKIBIDEA

1. Nola tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?
2. Nork tratatzen ditu zure datuak?
3. Datuak Babesteko Ordezkaria
4. Eskubideak baliatzea eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean erreklamazioak aurkeztea
5. Trataturako datuak
6. Zer tratamendu egingo ditugu zure datuak erabilita?
 - 6.1. Baimenean oinarritutako tratamenduak
 - 6.2. Kontratu-harremanak gauzatzeko beharrezkoak diren tratamenduak
 - 6.3. Arauzko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren tratamenduak
 - 6.4. CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoan oinarritutako tratamenduak
7. Datuen hartzaileak
8. Datuak gordetzeko epeak
9. Europako Esparru Ekonomikotik kanpo egindako datuen transferentziak
10. Erabaki automatizatuak
11. Berrikuspena

1. Nola tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gurekin dituzun harremanak kudeatzeko, CaixaBank Payments & Consumer-en zure datu pertsonalak hainbat helburu betetzeko trataturako ditugu, zure eskubideak errespetatuz eta gardentasun osoarekin.

Pribatutasun-politika honetan, edozein unetan sar zaitezke <https://www.caixabankpc.com/politicaprivacidad> helbidetik, eta **zure datuak nola erabiliko ditugun** azaltzen duen xehetasun osoa duzu.

Hurrengoak dira zure datu pertsonalekin gauzatuko ditugun tratamenduak arautzen dituzten araudiak:

- > Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko **2016/679 (EB) Erregelamendua**, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta zeinaren bitartez indargabetzen den 95/46/CE Zuzentaraua (aurrerantzean, **DBEO**)
- > Abenduaren 5eko **3/2018 Lege Organikoa**, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa (aurrerantzean, **DBLO**)

2. Nork tratatzen ditu zure datuak?

Tratamenduaren arduraduna: Gurekin dituzun kontratu- eta negozio-harremanetako («Kontratu-harremanak») zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna **CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.** da («**CaixaBank Payments & Consumer**» edo "**Erakundea**"), bere IFZ A-08980153 da eta egoitza soziala helbide honetan du: Manoteras etorbidea 20, Paris eraikina. 28050 Madril (28050).

Tratamenduaren erantzunkideak: tratamendu jakin batzuetarako, zure datuak beste erakunde batzuekin batera trataturako ditugu. Helburuak eta erabilitako bitartekoak elkarrekin erabakiko ditugu; beraz, tratamendu horien erantzunkideak gara.

CaixaBank Payments & Consumer-ek zure datuak beste erakunde batzuekin batera tratatzeko erabiliko dituen tratamenduak xehetasunez deskribatzen dira 6. atalean ("Zer tratamendu egiten ditugu zure datuekin").

www.caixabank.es/empresasgrupo webgunean erakunde erantzunkideen zerrenda eta tratamendu horiekin lotutako funtsezko alderdien berri ematen dizugu.

3. Datuak Babesteko Ordezkaria

CaixaBank Payments & Consumer-ek eta CaixaBank Taldeko enpresok Datuak Babesteko Ordezkaria bat izendatu dugu, zure datu pertsonalen tratamenduari eta zure eskubideen erabilerari buruzko edozein gairi erantzuteko.

Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke zure iradokizun, kontsulta, zalantza edo erreklamazioak helarazteko, helbide honetan: www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos.

4. Eskubideak baliatzea eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean erreklamazioak aurkeztea

Hurrengo eskubideak baliatu ditzakezu: datuetarako sarbidea izatea, zuzentzea, aurka egitea, ezabatzea, mugatzea, zure datu pertsonalen eramangarritasuna baliatzea, baimena kentzea eta legearen arabera automatizatutako erabaki baten xede ez izateko eskubidea, kanal hauen bidez:

Hurrengo edozein kanal erabil dezakezu eskubide horien gauzatzea eskatzeko:

- > **CaixaBank, S.A.k** jendearentzat zabalik dituen **bulegoetan**;
- > www.caixabankpc.com webgunean eta **mugikorrerako** gure **aplikazioetako** gunen pribatuan gaitutako aukeren bitartez;
- > helbide elektroniko honetan: [www.caixabankpc.com/ejercicio de derechos helbide elektronikoan](http://www.caixabankpc.com/ejercicio-de-derechos-helbide-elektronikoan); eta,
- > idazki bat bidalita helbide honetara: **Apartado de Correos** nº 209, 46080 Valencia.

Horrez gain, erreklamazioak aurkez ditzakezu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es).

5. Trataturako datuak

Politika honetan azaltzen dizkizugun tratamenduetarako, jarraian zehazten ditugun datuak erabiliko dira.

Atal honetan ematen ditugun datu guztiak ez dira datuen tratamendu guztietarako erabiltzen. 6. atalean, egiten ditugun datu-tratamenduak zehazten dira, eta tratamendu bakoitzean erabiltzen ditugun datu-tipologiak kontsultatu ahal izango dituzu.

Zure adostasunean oinarritutako tratamenduen kasuan, gainera, erabiliko diren datu zehatzen xehetasuna jakinaraziko dizugu.

Hauek dira erabiltzen ditugun datuen tipologiak eta xehetasunak:

> **Zure kontratuen altan edo gurekin izandako harremanean zehar elkarrizketa edo formularioen bitartez eman dizkiguzun datuak:**

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektroniko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea, jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza, nortasun-agiria, irudia eta ahotsa.
- **Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak:** jarduera profesionala edo lan-jarduera, diru-sarrerak edo ordainsariak, familia-unitatea edo -multzoa, ikasketa-maila, ondarea, datu fiskalak eta zerga-datuak.
- **Gaitasun juridikoari buruzko datuak:** pertsona baten jarduteko gaitasunari buruzko datuak, epai batean ezarriak.
- **Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak:** desgaitasuna duten

interesdunek emandako datuak, elkarriketarako eta kudeaketa operatiborako irisgarritasuna ahalbidetzeko.

- **Ahulezia egoerei dagozkien datu sentikorrek:** titularrek eskatutako kontratuen kudeaketan neurri bereziak hartzeko edo baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurri buruzko 6/2012 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako neurriak hartzeko beharrezkoak izan daitezkeen kalteberatasun-egoera pertsonalei buruzko datuak.

> **Merkaturatzen zaizkizun produktu eta zerbitzuen kontratazioan eta mantentzean behatutako datuak (berezkoak edo hirugarrenenak):**

- **Kontratazio-datuak:** kontratatutako edo eskatutako produktu eta zerbitzuak, kontratatutako produktu eta zerbitzuaren titular, baimendu edo ordezkari egoera, baloreen merkatuko eta finantza-tresnen arloko araudiaren arabera kategorizazioa (MIFID kategoria), egin dituzun inbertsioei buruzko informazioa eta haien bilakaera, eta finantzaketa-eragiketen informazioa eta mugimenduak.
- **Oinarrizko datu finantzarioak:** uneko saldoak eta produktu eta zerbitzuen historikoak, eta kontratatutako produktu eta zerbitzuen ordainketa-historia. IBAN (Banku Kontuaren Nazioarteko Kodearen ingelesezko siglak).
- **Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagiritan ikusitako hirugarrenen datuak:** hirugarren jaulkitzaileek kontuetan egiten dituzten ohar eta mugimenduen informazioa, barne hartuz eragiketa mota, jaulkitzailea, zordunketa-, kreditu- eta aurreordainketa-txartelekin egindako eragiketen ordainagiri eta laburpenetan agertzen diren zenbatekoa eta kontzeptua.
- **CaixaBank-eko akziodun izatearen ala ez izatearen datuak:** CaixaBank-eko akzioak edukitzearen edo ez edukitzearen datuak.
- **Zurekin mantendutako komunikazioen datuak:** txat, horma, bideo-konferentzia, telefono-dei edo baliokideak diren bitartekoak erabiliz lortutako datuak.
- **Berezko nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, gure web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, publizitate IDa, IP helbidea eta instalatutako aplikazioaren bertsioa.
- **Datu geografikoak:** aplikazioaren konfigurazioan hala baimendu duzunean, txartelarekin egindako eragiketen saltokien kokapen-datuak, zure gailu mugikorraren geolokalizazio-datuak, instalazioak edota mugikorreko gure aplikazioak erabiliz emandakoak.

> **Gainerako datuen analisi eta tratamendutik ondorioztatutako eta eratorritako datuak:**

- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:** Politikan aurreikusitako tratamenduak egitetik lortutako datuak. Datu horiek aplikatuko diren tratamenduen informazioan zehaztuko dira.
- **Eredu estatistikoak exekutatzetik lortutako datuak:** bezeroen datuak dituzten eredu matematikoen aplikazioaren emaitzak erabiltzen ditugu iruzurraren aurka borrokatzeko, zure kontsumo-ohiturak ondorioztatzeko, bezeroak kontratatzeko edo sailkatzeko lehentasunak/joerak ondorioztatzeko, gure arau-betebeharrak betetzeko eta zure produktu edota zerbitzuen eragiketak kudeatzeko.

> **Sarbide publikoko iturrietatik, erregistro publikoetatik edo kanpoko iturrietatik lortutako datuak:**

- **Kreditu-informazioko sistemen datuak:** Asnef eta Badexcug kreditu-informazioko fitxategiak kontsultatzetik lortutakoak; izan ere, zor, ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko informazioa ematen dute (zorduna, hartzekoduna eta zorra).
- **Equifax-en RISK SCORE datuak:** kuoten bidezko finantzaketa- edo ordainketa-eragiketetan, 12 hilabeterako ez-ordainketa egoeren kenketa-sistema horrek ematen duen emaitza erabiliko dugu, Equifax bidez kalkulatu, zure datuen (NANa, bizilekuaren posta-kodea eta kreditu-informazioko sistemetako datuak) gaineko eredu estatistiko eta matematikoak aplikatuta.
- **CIRBE datuak:** beste erakunde batzuetan arriskuak (finantzaketak) dituzun kontsultatuko dugu. Datu horiek Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazio

Zentralaren (CIRBE) eskutik lortuko ditugu.

- **Confirma datuak:** Confirma fitxategia atxikitako erakundearen finantzaketa-eragiketa komunaren eskaeraren fitxategi bat da, iruzurrari aurrea hartzeko helburuarekin sortua. Fitxategi horri jakinaraziko dizkiogu eragiketa-eskaeretan agertzen diren datuak, eta kontsultatu egingo dugu datu irregularrak detektatzeko.
- **Nazioarteko zigorrorei buruzko datuak:** Nazio Batuek, Europar Batasunak, Espainiako Erresuma eta baita Erresuma Batuko Office of Financial Sanctions Implementation (OFSI) of Her Majesty's Treasury (HTM) edota U.S. Department of the Treasury's Office of Foreign Assets Control (OFAC) erakundeak ezarritako nazioarteko zigor ekonomiko-finantzarioen gaietako lege, erregulazio, zuzentzarau, ebazpen, programa edo neurri murriztaileetan barne hartuta dauden pertsona edo erakundearen datuak.
- **Datu demografikoak eta sozioekonomikoak:** pertsona jakinei lotu gabeko datu estatistikoak dira, eremu geografiko, adin-tarte edo jardueraren profesionaleko sektoreei lotutakoak; datu horiek bezeroen informazioarekin erlazionatzeko erabiliko ditugu.
- **Zurekin lotutako higiezin eta ibilgailuei buruzko datuak:** Jabetza Erregistrotik eta katastrofik lortutako datuak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian ibilgailuei buruz lortutako oinarritzko datuak, zeinak zure higiezin eta ibilgailuei buruzko informazioa osatzeko erabiliko baititugu.
- **Administratzaile, kargu funtzional eta sozietate-loturei buruzko datuak:** INFORMA-ren datu-baseetatik ateratako datuak dira, eta erabili egingo ditugu zure jarduerari buruzko informazioa osatzeko.
- **Nekazaritzako diru-laguntzen eta aseguruaren datuak:** Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtzari (NBEF) eta Nekazaritza Aseguruaren Estatuko Erakundeak (NAEE) argitaratutako datuak.
- **Gurekin partekatze baimena eman diezun hirugarren erakundearen datuak:** haiekin akordioak ditugun beste erakunde batzuek tratatzen dituzten zure datuak, eta zuk gurekin informazioa partekatze baimendu dituzunak.
- **Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak:** sarbide publikoko iturri eta erregistro publikoek emandako datuak, alta ematean eman diguzun informazioa egiaztatze eta Kontratu-harremanak mantentzeko eta betetzeko. Horrez gainera, Ekifaxeko Konkurtso Egoeren Kontsultak fitxategiaren eta Konkurtso Erregistro Publikoaren informazioa, telefono-direktorioetatik (Páginas Blancas, Páginas Amarillas, Lleida.net) eta INFORMA datu-basetik lortutako harremanetarako datu gehigarriak, gure bezeroekin harremanetan jartzeko, kontratu-betebeharrak betetzen ez badira.

Datu-base horiek alde aurretik legitimatuta daude informazio hori eskuratzeko.

- **Nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, hirugarrenen web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, (publizitate IDa, IP helbidea).
- **Sare sozialetatik edo Internet bidez lortutako datuak:** kontsultatzeko baimena eman diguzun sare sozialetako edo Internet bidezko datuak.

6. Zer tratamendu egingo ditugu zure datuak erabilita?

Askotarikoak dira zure datuekin egingo ditugun tratamenduak, eta hainbat helburu eta oinarri juridikori erantzuten die:

- Baimenean oinarritutako tratamenduak
- Kontratu-harremanak gauzatzeko beharrezkoak diren tratamenduak
- Arauzko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren tratamenduak
- CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoan oinarritutako tratamenduak

Jarraian azaltzen dizkizugun tratamenduez gain, Politika honetan jasotzen ez diren tratamendu espezifikoak egin ditzakegu. Tratamendu horiek zure produktu edo zerbitzuen eskaerei erantzuteko

egin daitezke. Tratamendu horiei buruzko informazio xehatua emango dizugu eskaera zehatza egiten duzunean.

6.1 BAIMENEAN OINARRITUTAKO TRATAMENDUAK

Zure **adostasuna** da tratamendu hauen oinarri juridikoa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Baliteke baimen hori hainbat bide ezberdinetatik eskatu izana; adibidez, bezero gisa alta eman zenuen elkarrizketan, zure kudeatzailearen bidez (aurrez aurre edo urrunetik), gure kanal elektronikoen eta mugikorreko aplikazioen bidez, lankidetzaz hitzarmenak ditugun erakundetakoren baten bitartez ("Preskriptoreak"), edo tratamendu zehatzaren erantzunkide den CaixaBank Taldeko erakunderen baten.

Baimena eskatu ez badizugu, tratamendu horiek ez zaizkizu aplikatuko. Baimendu edo ukatu dizkiguzun baimenak kontsulta ditzakezu, eta erabakia edozein unetan eta doan alda dezakezu CaixaBank-en bulegoetan, CaixaBank Payments & Consumer-en webgunean (www.caixabankpc.es) eta tratamendu zehatzaren erakunde erantzunkide bakoitzaren webgunean, edo CaixaBank Payments & Consumer-en webguneko edo aplikazio mugikorreko zure gune pribatuan.

Jarraian adierazten dira zure baimenean oinarritutako tratamenduak, (A)tik (C)rako hurrenkeran. Hau adierazten dugu horietako bakoitzerako:

- Helburuaren deskribapena
 - Tratamendutako datuen tipologiaren xehetasuna
 - Profilen erabilerrari buruzko informazioa, hala badagokio
 - Tratamenduari buruzko bestelako informazio garrantzitsua
- CaixaBank Taldeko beste erakunde batzuekin erantzunkidetasun erregimenean egindako tratamenduak diren ala ez.

A. Datuen analisiaren arabera produktuen eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzea

Helburua: Baimena ematen badiguzu, profil komertzial bat sortuko dugu zure datuetan oinarrituta, zure lehentasunak zein diren ondorioztatu eta gehien interesatzen zaizkizun produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko zure kudeatzailearen (aurrez aurrekoa edo urrunekoa) bidez.

Horrek ez du esan nahi gure ustez interesatzen zaizkizula uste dugun produktuak bakarrik kontrata ditzakezunik.

Tratamendu hori onartu ala ez, beti eskatu ahal izango duzu gure edozein produktu edo zerbitzu.

Zure datuak tratatzean, eskaintza pertsonalizatuak egin ahal izango dizkizugu, eskaintza generikoak baino gehiago interesatuko zaizkizulakoan.

Eskaintza komertziala beste bide batzuetatik komunikatzeko baimena ere ematen badiguzu (ikus Pribatutasun-politikaren 6.1.B puntua), gure eskaintzak ere jasoko dituzu, zuk esaten dizkiguzun kanalen bidez.

Tratamendutako datuak: Tratamendu hori egiteko, ez ditugu erabiliko zure jatorri etnikoari edo arraza-jatorriari buruzko datuak, zure iritzi politikoak, zure sinesmen erlijioso edo filosofikoak, zure afiliazio sindikala, zure datu genetikoak, identifikatzen zaituzten datu biometrikoak, zure osasunari buruzko datuak edo zure bizitza edo orientazio sexualari buruzko datuak.

Helburu horretarako, datu hauek tratamendutako ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea eta jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza eta nortasun-agiria.
- **Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak:** jarduera profesionala edo lan-jarduera, diru-sarrerak edo ordainsariak, familia-unitatea edo -multzoa, ikasketa-maila, ondarea, datu fiskalak eta zerga-datuak.
- **Kontratazio-datuak:** kontratatutako edo eskatutako (propioak edo hirugarrenenak) produktu eta zerbitzuak, kontratatutako produktu eta zerbitzuaren titular, baimendu edo ordezkari egoera, baloreen merkatuko eta finantza-tresnen arloko araudiaren araberrako kategorizazioa (MIFID kategorioa), egin dituzun inbertsioei buruzko informazioa eta haien bilakaera, eta finantzaketa-eragiketen informazioa eta mugimenduak.

- **Oinarrizko datu finantzarioak:** uneko saldoak eta produktu eta zerbitzuen historikoak, kontratatutako produktu eta zerbitzuen ordainketa-historiala (berezkoak edo hirugarrenenak).
- **Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak:** hirugarren jaulkitzaileek kontuetan egiten dituzten ohar eta mugimenduen informazioa, barne hartuz eragiketa mota, jaulkitzailea, zordunketa-, kreditu- eta aurreordainketa-txarteekin egindako eragiketen ordainagiri eta laburpenetan agertzen diren zenbatekoa eta kontzeptua.
- **CaixaBank-eko akziodun izatearen ala ez izatearen datuak:** CaixaBank-eko akzioak edukitzearen edo ez edukitzearen datuak.
- **Zurekin mantendutako komunikazioen datuak:** txat, horma, bideo-konferentzia, telefono-dei edo baliokideak diren bitartekoak erabiliz lortutako datuak.
- **Berezko nabigazio-datuak:** Zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, gure web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, publizitate IDa, IP helbidea eta instalatutako aplikazioaren bertsioa.
- **Datu geografikoak:** aplikazioaren konfigurazioan hala baimendu duzunean, txartelarekin egindako eragiketen saltokien kokapen-datuak, zure gailu mugikorraren geolokalizazio-datuak, instalazioak edota mugikorreko gure aplikazioak erabiliz emandakoak.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - Arriskuen ebaluaziorako datuak edo *scoring-a*: kuoten bidezko finantzaketa- edo ordainketa-eragiketetan, ordaintzeko edo ez ordaintzeko den ahalmena edo arrisku-mugak ondorioztatuko ditugu, zure datuekin kalkulatzeko diren eredu matematiko estatistikoak aplikatuta (6.2.B epigrafean zehaztutako tratamendua).
 - Bezeroen sailkapenaren datuak (CaixaBank-en Pribatutasun-politikaren 6.4.A epigrafean zehaztutako tratamendua, hemen: <https://www.caixabank.es/particular/general/politica-privacidad.html>).
- **Eredu estatistikoak exekutatzen lortutako datuak:** bezeroen datuekin eredu matematikoak aplikatzen lortutako emaitzak erabiltzen ditugu, haien kontsumo-ohiturak, lehentasunak/kontratazio-joerak edo bezeroen sailkapena ondorioztatzeko.
- **Datu demografikoak eta sozioekonomikoak:** pertsona jakinei lotu gabeko datu estatistikoak dira, eremu geografiko, adin-tarte edo jardura profesionaleko sektoreei lotutakoak; datu horiek bezeroen informazioarekin erlazionatzeko erabiliko ditugu.
- **Zurekin lotutako higiezin eta ibilgailuei buruzko datuak:** katastroan lortutako datuak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian ibilgailuei buruz lortutako oinarrizko datuak dira; horiek erabiliko ditugu zure higiezin eta ibilgailuei buruzko informazioa osatzeko.
- **Administratzaile, kargu funtzional eta sozietate-loturei buruzko datuak:** INFORMaren datu-baseetatik ateratako datuak dira, eta erabili egingo ditugu zure jarduerari buruzko informazioa osatzeko.
- **Nekazaritzako diru-laguntzen eta aseguruaren datuak:** Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtsak (NBEF) eta Nekazaritza Aseguruaren Estatuko Erakundeak (NAEE) argitaratutako datuak.
- **Gurekin horiek partekatzeko baimena eman diezun hirugarren enpresen datuak:** akordioak eginik ditugun beste enpresa batzuek tratatzen dituzten datuak, eta zuk horiei gurekin informazioa partekatzeko baimena emana diezunean.
- **Nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, hirugarrenen web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, (publizitate IDa, IP helbidea).
- **Sare sozialetatik edo Internet bidez lortutako datuak:** kontsultatzeko baimena eman diguzun sare sozialetako edo Internet bidezko datuak.

Profilen erabilera: Tratamendu honetarako, profil komertzial bat sortuko dugu, eksklusiboki gure produktu eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzeko erabiliko duguna:

- **Profilaren helburua:** zuri buruz dugun informazioarekin egingo dugun profilak balioko digu zuretzat zer produktu eta zerbitzu izan daitezkeen interesgarriak ondorioztatzeko eta eskaintza generikoen ordez eskaintza pertsonalizatuak egiteko.
- **Ondorioak:** zure datuak horretarako tratatzeko baimena ematen badiguzu, profil komertzialak erabiliko ditugu zer produktu edo zerbitzu eskainiko dizkizugun erabakitzeko. Ez baduzu baimentzen, zure informazioa ez dugu erabiliko eskaintza komertziala pertsonalizatzeko.

Profil hori ez dugu erabiliko inolako produktu edo zerbitzuren kontratazioa ukatzeko, ezta kreditu-mugak zehazteko ere. Datuen tratamendu hori ez onartzeak ez du eragotzi, mugatu edo baldintzatzen gure produktu eta zerbitzuen katalogo osorako sarbidea, eskura izango baituzu beti.

Edozein produktu edo zerbitzuren kontratazioa eskatzen baduzu, zure eskaera ebaluatuko dugu gure prozeduren arabera. Produktu eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzeko zure datuen analisia onartzeak ala ez onartzeak ez du eraginik izango ebaluazio horretan.

Datuen tratamendu hori ez onartzeak, halaber, ez digu eragotziko zurekin harremanetan jartzea zure produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko.

- **Logika:** bezero baten profila "Tratatutako datuak" atalean adierazitako datuetatik abiatuz kalkulatzeko da.

Datu horiei antzeko ezaugarriak dituzten bezeroei iraganean hautemandako portaeretatik abiatuz lortutako formula matematikoa aplikatuko zaizkie, etorkizunean bezeroaren jokabidean eragite aldera. Formula matematiko horiek aukera ematen dute eskatzailearen profilaren amaierako emaitzan tratatutako datu bakoitzaren garrantzia zehazteko.

Horren azken emaitza bezeroak produktu edo zerbitzu batean duen interesaren probabilitatea da.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Ordaintzeko gaitasunaren alde aurreko egiaztapena:** kuotak ordaintzea edo finantzaketa dakarten produktuak edo zerbitzuak eskaintzen dizkizugunean, zure ordaintzeko gaitasuna egiaztatuko dugu alde aurretik. 6.2.B. puntuan azaldutakoaren arabera egingo dugu.

Horren helburua da kreditu-muga eta itzulketa-epe egokiak eskaintzea, zure finantza-egoerari buruz dugun ezagutzara egokituta. Hori guztiori, Espainiako Bankuak finantzaketa-produktuen eskaintzan eskatutako erantzukizun-printzipioen arabera eta kreditu-erakundearen eta mailegu arduratsuen zuhurtziazko ikuskerari eta kaudimenari buruzko araudiari jarraituz egingo dugu.

Tratamendu hori ez onartzeak ez du eragotzi, mugatu edo baldintzatzen gure produktu eta zerbitzuen katalogo osorako sarbidea. Zuk eskatuz gero, gure prozeduren arabera ebaluatuko dugu zure eskaera.

- **Tratamenduaren indarraldia:** datuen tratamendu hau horretarako baimena eman badiguzu bakarrik egingo dugu. Adostasuna indarrean mantenduko da hori baztertzeko ez duzun bitartean. Gurekin dituzun produktu edo zerbitzu guztiak ezeztatzen badituzu, baina emandako baimena kentzea ahazten bazaizu, geuk kenduko dugu automatikoki.
- **Eredu matematikoa sortzea:** tratamendu honen ondoriozko datuak eredu matematikoa egiteko erabiliko dira, 6.4.E epigrafean azaldutakoaren arabera.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek tratatuko dituzte zure datuak, tratamendu horretarako erantzunkidetasunean.

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Facilitea SelectPlace, S.A. Sociedad Unipersonal

- ImaginersGen, S.A.
- VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

B. Produktu eta zerbitzuen eskaintza kanalen bidez komunikatzea

Helburua: Aurreko A atalean adierazi diguzunaren arabera, beste kanal batzuk hauta ditzakezu, gure produktu- edo zerbitzu-eskaintza pertsonalizatua zein ez-pertsonalizatua jakinarazteko.

Baimena ematen badiguzu, gure produktuak eta zerbitzuak zuk esaten diguzun kanalen bidez eskainiko dizkizugu:

- webgunea, app-a eta posta elektronikoa
- gutuna
- telefonoa

Erabiliko ditugun datuak aldatu egingo dira honen arabera:

- Eskaintza komertziala pertsonalizatzen ez badiguzu uzten (ikus 6.1.A atala), zure identifikazio- eta harreman-datuak soilik erabiliko ditugu eskaintza generikoak eskaintzeko.
- Eskaintza komertziala pertsonalizatzen uzten badiguzu (ikus 6.1.A atala), zure profil komertzialaren informazioa ere erabiliko dugu eskaintza pertsonalizatuak eskaintzeko.

Tratatutako datuak: Tratamendu hori egiteko, ez ditugu erabiliko zure jatorri etnikoari edo arraza-jatorriari buruzko datuak, zure irtzi politikoak, zure sinesmen erlijioso edo filosofikoak, zure afiliazio sindikala, zure datu genetikoak, identifikatzen zaituzten datu biometrikoak, zure osasunari buruzko datuak edo zure bizitza edo orientazio sexualari buruzko datuak.

Helburu horretarako, datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea eta komunikatzeko hizkuntza.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - **Produktu eta zerbitzuen eskaintzaren pertsonalizazioaren datuak, zure datuen analisis oinarrituta:** gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko baimena ematen baduzu (ikus Politikaren 6.1.A tratamendua), zure profil komertzialaren informazioa eskaintza pertsonalizatuak eskaintzeko ere erabiliko dugu.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduaren indarraldia:** datuen tratamendu hau horretarako baimena eman badiguzu bakarrik egingo dugu. Adostasuna indarrean mantenduko da hori baztertzen ez duzun bitartean. Gurekin dituzun produktu edo zerbitzu guztiak ezeztatzen badituzu, baina emandako baimena kentzea ahazten bazaizu, geuk kenduko dugu automatikoki.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Facilitea Selectplace, S.A, Sociedad Unipersonal
- ImaginersGen, S.A.
- VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo

C. Datuak beste enpresa batzuei lagatzea

Helburua: Baimena ematen badiguzu, zure datuak beste enpresa batzuei lagako dizkiegu, haien

produktu eta zerbitzuen eskaintza komertzialak bidaltzeko aukera izan dezazun. Datu horiek aldatu egingo dira honen arabera:

- Eskaintza komertziala pertsonalizatzen uzten ez badiguzu (ikus 6.1.A atala), zure identifikazio-eta harreman-datuak bakarrik utziko dizkiegu erakunde horiei.
- Eskaintza komertziala pertsonalizatzen uzten badiguzu (ikus 6.1.A atala), zure profil komertzialari buruzko informazioa ere emango diegu erakunde horiei, bai eta ordaintzeko edo ez ordaintzeko duzun probabilitateari edo arrisku-mugei buruzko informazioa ere.

Baimena ez badiguzu ematen, zure datuak ez dizkiegu beste erakunde batzuei jakinaraziko.

Zure datuak laga diezazkiekegun hirugarren erakunde horiek jarduera hauetan aritzen dira:

- bankukoak
- inbertsio-zerbitzuak
- aseguruak eta berraseguruak
- arrisku-kapitala
- higiezinak
- bideak
- ondasun eta zerbitzuen salmenta eta banaketa
- aholkularitza-zerbitzuak
- aisialdia, eta
- ongintzakoak-sozialak

Tratatutako datuak: Tratamendu hori egiteko, ez ditugu erabiliko zure jatorri etnikoari edo arraza-jatorriari buruzko datuak, zure iritzi politikoak, zure sinesmen erlijioso edo filosofikoak, zure afiliazio sindikala, zure datu genetikoak, identifikatzen zaituzten datu biometrikoak, zure osasunari buruzko datuak edo zure bizitza edo orientazio sexualari buruzko datuak.

Helburu horretarako, datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea eta jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza eta nortasun-agiria.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**

Produktu eta zerbitzuen eskaintzaren pertsonalizazioaren datuak, zure datuen analisian oinarrituta: gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko baimena ematen baduzu (ikus 6.1.A atala), zure profil komertzialaren informazioa eskaintza pertsonalizatuak eskaintzeko ere erabiliko dugu.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Lagapenari buruzko informazioa:** enpresa batekin zure datuak komunikatzeko akordioaren bat egiten badugu, datuak jasotzen dituen enpresak komunikazio horren berri emango dizu. Jasotako datuen eta egin nahi duen tratamenduaren xehetasunen berri ere emango dizu.
- **Tratamenduaren indarraldia:** datuen tratamendu hau horretarako baimena eman badiguzu bakarrik egingo dugu. Adostasuna indarrean mantenduko da hori bazterten ez duzun bitartean. Gurekin dituzun produktu edo zerbitzu guztiak ezeztatzen badituzu, baina emandako baimena kentzea ahazten bazaizu, geuk kenduko dugu automatikoki.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.

- Facilitea Selectplace, S.A, Sociedad Unipersonal
- ImaginersGen, S.A.
- VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

6.2 KONTRATU-HARREMANAK GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN TRATAMENDUAK

Datuen tratamendu horiek beharrezkoak dira eskatzen dizkiguzun edo parte zaren kontratuak kudeatzeko. Baita kontratu-aurreko neurriak aplikatzeko ere, horiek eskatu badituzu. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) 6.1.b) artikuluan oinarrituta tratatuko ditugu.

Tratamendu horiek beharrezkoak dira zuk gurekin kontratatu eta kontratu horiek mantendu ahal izateko. Ez bazenu nahi tratamendu hori egiterik, harreman horiek amaitu beharko genituzke, edo ezingo zenuke kontratatu oraindik ez baduzu egin.

Zure kontratuak kudeatzeko behar diren tratamenduak jarraian adierazten dira, (A)tik (C)rako hurrenkeran. Hau adierazten dugu horietako bakoitzerako: helburua, tratatutako datuen tipologia, profilen erabilerari buruzko informazioa, tratamenduari buruzko beste informazio garrantzitsu bat eta CaixaBank Taldeko beste erakunde batzuekin erantzunkidetasunean egindako tratamenduak diren ala ez.

A. Kontratu-harremanak formalizatu, mantendu eta gauzatzea

Helburua:

Datuen tratamendu honen helburua da zure eta CaixaBank Payments & Consumer-en arteko kontratu-harremanak formalizatzea eta mantentzea. Horrek esan nahi du CaixaBank Payments & Consumer-ek zure datuak tratatuko dituela honako helburu hauetarako:

- Zure eskaerak eta aginduak kudeatzea.
- Zure kontratazioaren aurreko kudeaketak egitea ("kontratu aurreko harremanak"), gurekin zuzenean edo gure bitartekarietako baten bidez izapidetu daitezkeenak (adibidez CaixaBank, S.A. gure agentea edo gure edozein preskriptore, zu bezero izan zaitezkeen merkataritza-establezimenduak dituztenak).
- Gurekin dituzun kontratuak betetzen direla ziurtatzeko neurriak ezartzea.

Datuen tratamendu horrek esan nahi du CaixaBank Payments & Consumer-ek behar duen informazioa soilik jasoko duela honetarako:

- Zurekin harremana formalizatzea edo zure eskaera kudeatzea.
- Kontratatu nahi duzun produktua edo zerbitzua zuretzat egokia den egiaztatzea.
- Zure kontratuak behar bezala mantentzea eta gauzatzea.

Hurrengoak dira kontratu-harremanak formalizatu, mantendu eta egikaritzean gauzatzen diren tratamendu-jarduerak:

- Eskatutako produktuak kontratatzeke beharrezko datu eta dokumentuak jasotzea eta erregistratzea.
- Produktu eta zerbitzuen kontratuen sinadura formalizatzea.
- Gurekin kontratatu dituzun produktu eta zerbitzuen eragiketak kudeatzea. Horren barruan sartzen da zure kontsulta operatiboari erantzutea, gorabeherak kudeatzea, produktuen kobrantzen eta ordainketen kontabilitate-apunteak idaztea eta egiaztatzea, eta komunikazio operatiboak bidaltzea. Baita produktu edo zerbitzu espezifikoak kontratatzeke hartutako konpromisoak bete ahal izateko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak ere, hala nola fidelizazio-programak, komisioren edo interesen hobaria eta eskaintza espezifikoak.

Tratatutako datuen tipologia: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorrak
- Gaitasun juridikoari buruzko datuak
- Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak
- Arriskua ebaluatzeko datuak edo *scoringa* (6.2.B epigrafean definitutako tratamendua)
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Kreditu-informazio sistemen datuak
- Equifax-en RISK SCORE datuak
- CIRBE datuak
- Nazioarteko zigorrei dagozkien datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Profilen erabilera: Balizko ez-ordaintzeak berreskuratzeko, zure ordainketa-probabilitateari buruzko profil bat sortuko dugu. Haren bidez, berreskuratze-probabilitate altua, ertaina edo baxua duzun kategoriatan sailkatzen zaitugu.

Helburua: Profil horrek datozen 90 egunetan zorra berreskuratzeko aukerak kalkulatzeko ditu.

- **Ondorioak:** ordainketa-probabilitatearen profilek dirua berreskuratzeko estrategiarik onena erabakitzen laguntzen dute.
- **Logika:** kontratua ordaindu gabeko 90 egunetara iristen denean hasten da prozesua. Eskatzailearen profilak aurreko "Tratatutako datuen tipologia" epigrafean adierazitako informazioa erabiliko du.

Oinarrizko informazio horrekin interesdunaren datu horietako bakoitzerako balio zehatz bat adierazten da, eta baturak hurrengo 90 egunetan kontratua berreskuratzeko probabilitateari buruzko puntuazioa emango du.

Aldagai bakoitzaren garrantzia eta azken emaitzan duen eragina lehenago kalkulatzeko da eredu matematikoen bidez.

Bestelako informazio garrantzitsua:

Erabaki automatizatuak: produktu edo zerbitzu bat kontratatzea eskatzen duzunean, produktua zure beharretara, interesetara eta helburuetara egokitzen den ala ez egiaztatuko dugu. Hori egingo dugu, tratamendu honetako "tratatatutako datuen tipologia" atalean adierazi dizkizugun datuak kontuan hartuta, hala nola zure lan-egoera, zure inbertitzaile-profila edo bizilekua.

Zure datu horiek kontuan hartuta produktua ez bada egokia, ezin izango duzu kontratatu.

Pertsona batek erabaki hori berrikus dezan eska dezakezu, CaixaBank Payments & Consumer erakundearekin zuzenean harremanetan jarritz. Horretarako, mezu elektronikoa bidali behar duzu Revision.decisionautomatizada@caixabankpc.com helbidera.

- **Konpromisoen, deskontuen edo lehentasunezko baldintzen aplikazioa edo horien gainerako jarraipena:** baldintza jakin batzuk betetzea eskatzen duen produktu edo zerbitzu bat kontratatzen baduzu, beharrezko datu-tratamenduak egingo ditugu horiek betetzen

jarraitzen duzula egiaztatzeko. Gainera, jakinarazten dizugu zure kontuetan beste titularkide batzuk badaude, horiek zeharka jakin dezaketela baldintza horiek betetzeari buruzko informazioa.

Adibidez, talde profesional bateko kide izateagatik deskontuak izateko eskubidea ematen dizun produktu edo zerbitzu bat kontratatzen baduzu, hala nola osasun-langileena edo segurtasun-kidegoena, kontratua indarrean dagoen bitartean egiaztatuko dugu oraindik ere talde horretakoa zarela. Kontuan izan behar duzu, beste pertsona batzuekin partekatuz gero, pertsona horiek jakin lezaketela baldintzak betetzen ote dituzun kontuan deskontuak aplikatzen dizkizutela ikustean, edo betetzeari uzten diozun horiek zuri aplikatzeari uzten bazaio.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

Produktua edo zerbitzua CaixaBank Payments & Consumer-en kontratatzen baduzu, baina beste erakunde batek jaulkitzen badu, erakunde horrek tratatuko ditu kontratu horri buruzko zure datuak.

Esate baterako:

- CaixaBank Payments & Consumer-en kontratatzen baduzu, erakunde hori VidaCaixaren edo SegurCaixaren aseguru bati lotutako banku-aseguru operadore den aldetik, enpresa horiek izango dira zure datuen erantzuleak.

Kontratatzen duzun produktu edo zerbitzu bakoitzaren dokumentazioan nor den arduraduna adieraziko dizugu.

B. Kaudimenaren eta itzultzeko gaitasunaren azterketa, kreditua eskaini eta haren arriskuaren jarraipena egiteko.

Helburua: Datuen tratamendu horren bidez, kuoten ordainketa geroratua dakarten produktu edo zerbitzuen eskatzaileek edo titularrek itundutako kuotak ordain ditzaketen jakiten da.

Tratamendu horren beste helburuetako bat da aurreratu dugun dirua itzultzea dakarten produktu edo zerbitzuen titularrek itzul dezaketen jakitea.

Tratamendu horren xehetasunen berri emango dizugu aipatutako produktu edo zerbitzuetako bat eskatzen duzun unean edo produktu edo zerbitzu horri dagokion kontratuan.

Hauek dira arriskuaren barne kudeaketarako eta ez ordaintzea prebenitzeko egiten ditugun tratamendu-eragiketak:

- Aipatutako produktuak eta zerbitzuak ematean eskatzaileek ordaintzeko duten gaitasuna aztertzea.
- Aipatutako produktu eta zerbitzuen titularren ordainketa-ahalmena aztertzea, horiek indarrean dauden bitartean.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Kreditu-informazio sistemen datuak
- Equifax-en RISK SCORE datuak
- CIRBE datuak
- Datu demografikoak eta sozioekonomikoak
- Zurekin lotutako higiezin eta ibilgailuei buruzko datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Profilen erabilera: arrisku-profil bat sortuko dugu, hitzartutako kuotak edo alde zurretik eman dizugun dirua itzul ditzakezun jakiteko soilik erabiliko duguna.

- **Profilaren helburua:** Profil honek honetarako balio du:
 - Produktu bat emateko unean ez ordaintzeko probabilitatea jakiteko.
 - Indarrean dauden eragiketetan emandako zenbatekoa handitu edo murrizteko.
 - CaixaBank Payments & Consumer-i aplikatu beharreko hornidurak eta kapital-baldintzak kalkulatzeko.
- **Ondorioak:** Arrisku-profilek eskatutako eragiketa emango dizugun ala ez erabakitzen laguntzen digute. Indarrean dauden eragiketetan emandako zenbatekoa handitzen edo murrizten dizugun ebaluatzen ere laguntzen digute.

Produktu edo zerbitzu horietako bat kanal elektronikoen bidez eskatzen duzunean, profil horrek eskatzen ari zaren produktua emateko edo ez emateko erabaki automatizatuak hartzea dakar.

Xehetasun osoa duzu "Beste informazio garrantzitsu bat" atalean.
- **Logika:** Aurreko atalean ("Tratatutako datuen tipologia") adierazitako informazioa erabiliko da.

Informazio horrekin, balio espezifiko bat ematen zaio datu horietako bakoitzari. Balio horien baturak ez ordaintzeko probabilitateari dagokion puntuazioa emango du.

Aldagai bakoitzaren garrantzia eta azken emaitzan duen eragina alde zurretik kalkulatu du eredu matematikoen bidez, eta kontuan hartzen dira arriskuari buruzko gure barne politikak.

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Erabaki automatizatuak:** Kanal elektronikoen bidez edo preskriptoreen bidez egindako eskaeretan ordaintzeko duzun gaitasuna aztertzeke, tratamendu automatizatuak erabiliko ditugu, eskatzen ari zaren finantzaketa eman diezazukegun ala ez egiaztatzeke.

Aurreko kalkulutik ondorioztatzen bada ez dizugula finantzaketa ematen, ezin izango duzu eskatutako produktua kanal honen bidez kontratatu. Hala ere, pertsona batek erabaki hori berrikusteko eskatu ahal izango duzu, CaixaBank Payments & Consumer erakundearekin zuzenean harremanetan jarri, eta mezu elektronikoa bat bidaliz revision.decisionautomatizado@caixabankpc.com.

Eragiketa berriro eska dezakezu, analisiak erabaki automatizaturik izan ez dezan.
- **Arauzko betebeharrak:** Tratamendu horiek beharrezkoak dira gure kontratu-harremana kudeatzeko. Honako hauek ere beharrezkoak dira araua betetzeko: 44/2002 Legea, Finantza Sistema Erreformatzeko Neurriei buruzkoa; 10/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kreditu Erakundearen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenari buruzkoa; eta mailegu arduratsua emateari buruzko araudien beste betebeharrak eta printzipio batzuk. Araudi horiek aplikatu egiten zaizkigu, kredituko finantza-establezimendua izateagatik.
- **Kreditu-informazioko sistemei kontsultak egitea:** Zure ordainketa-ahalmena aztertzeke beharrezkoak diren kreditu-informazioko sistemei kontsultak egingo dizkiegu. Kontsulta horiek 6.4.C atalean zehaztutako gure interes legitimoan oinarrituta egingo ditugu.
- **CIRBERi kontsulta egin eta jakinaraztea:** CIRBERi egin beharreko kontsultak, zure ordainketa-ahalmena aztertzeke, Finantza Sistema Erreformatzeko Neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legearen xedatutakoaren arabera egiten dira. Era berean, kreditu-arriskuak hitzartuta diren pertsonak identifikatzeko beharrezko datuak jakinaraziko dira.
- **Eredu matematikoak sortzea:** Tratamendu honen datuak eredu matematikoak egiteko erabiliko ditugu, Politika honen 6.4.E atalean adierazitakoaren arabera.

Tratamenduaren erantzunkideak: Araudi aplikagarriak zure ordainketa-gaitasuna aztertzerantz behartzen gaitu,

kreditu-erakundeen gure talde bateratua osatzen duten sozietateekin batera.

CaixaBank Taldeko honako erakunde hauek tratatuko dituzte zure datuak, tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Banco BPI, S.A.
- Facilitea SelectPlace, S.A., Sociedad Unipersonal
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.

Jarraian, erantzunkidetasunaren arabera gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak aurkituko dituzu: www.caixabank.es/empresasgrupo

C. Ez-ordaintzeen eta berankortasunaren kudeaketa.

Helburua: Epeka ordaintzeko edo dirua aldeztatik itzultzeko eragiketetan gertatzen diren edo gerta daitezkeen ez-ordaintzeak ebazteko neurriak ezartzea.

Neurri horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

- Zorren kudeaketa hasierako une batean
- Zure datuak kanpo-agentziei jakinaraztea zorra berreskuratzeko.
- Zure datuak kreditu-informazioko sistemiei jakinaraztea (kaudimen-fitxategiak)
- Demandak jartzea eta horien jarraipena egitea
- Hartzekodunen konkurtso-egoerak identifikatzea eta horien jarraipena egitea.
- Zorra birfinantzatzeko neurriak, ordainetan emateak edo Jardunbide Egokien Kodeari lotutako espedienteak berrikustea eta baloratzea
- Kreditu-zorroen salmenta
- Aurrez aurreko bisitak

Tratatutako datuen tipologia:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jardura profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorak
- Gaitasun juridikoari buruzko datuak
- Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Kontratazio-datuak
- Oinarritzko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Kreditu-informazio sistemen datuak
- Equifax-en RISK SCORE datuak
- CIRBE datuak

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Profilen erabilera: ekonomia- edo kaudimen-profil bat sortuko dugu, eta zorra berreskuratzeko neurri zehatz eta egokiak ezartzeko baino ez dugu erabiliko.

- **Profilaren helburua:** CaixaBank Payments & Consumer-ek zorra berreskuratzeko kudeaketak egiteko neurri egokienak zein diren jakitea. Bezero bakoitzaren zorra berreskuratzeko aurreikuspena ezagutzeko ere balio du.
- **Ondorioak:** Profila zorra berreskuratzeko ekintzei buruzko erabakiak hartzen laguntzeko tresna dira. Bezero bakoitzarentzat neurri egokienak zehazten laguntzen digute.
Logika: Profila aurreko atalean adierazitako datuak erabiliko ditu. Oinarrizko informazio horrekin zure datu bakoitzari balio bat esleitzen zaio, baturak zorra berreskuratzeko probabilitateari eta zorra berreskuratzeko ekintza egokienei buruzko puntuazio bat emango du.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Kreditu-informazioko sistemei jakinaraztea:** Tratamendu horrek berekin ekar dezake zorraren edo ez-ordaintzearen datuak kreditu-informazioko sistemei jakinaraztea. Hori gure interes legitimoan oinarrituta egingo litzateke, 6.4.C atalean zehazten dugunaren arabera.
- **Harremanetarako datuak eskuratzeko:** Baliteke zorrak berreskuratzeko kanpoko agentziek zure harremanetarako datu gehigarriak bildu behar izatea zorra berreskuratzeko. Hori gure interes legitimoan oinarrituta egingo da, 6.4.D atalean xehetasunez azaltzen dizugun bezala.
- **Eredu matematikoak sortzea:** Tratamenduko datuak eta tratamendu horren ondoriozkoak eredu matematikoak egiteko ere erabiliko dira. Hori 6.4.E atalean xehetasunez azaltzen den bezala egingo da.

Tratamenduaren erantzunkideak: Aplikatu beharreko araudiak gure talde bateratua osatzen duten sozietate guztien artean kreditu- eta likidezia-arriskuaren kudeaketa egitera behartzen gaitu.

CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Banco BPI, SA.
- Facilitea Select Place, S.A.U.
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.

Jarraian, erantzunkidetasunaren arabera gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak aurkituko dituzu: www.caixabank.es/empresasgrupo.

6.3 ARAU-BETEBEHARRAK BETETZEKO BEHARREZKOAK DIREN TRATAMENDUAK

Datuen tratamendu horien oinarri juridikoa aplika dakigukeen lege-betebehar bat betetzeko beharrezkoak izatea da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) 6.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zure datuak tratatu behar ditugu zuk gurekin kontratatu eta kontratu horiek mantendu ahal izateko. Ez bazenu nahi tratamendu hori egiterik, harreman horiek amaitu beharko genituzke, edo ezingo zenuke kontratatu oraindik ez baduzu egin.

Jarraian adieraziko dira arau-betebeharrek betetzeko beharrezko tratamenduak, (A)tik (G)rako hurrenkeran. Hau adierazten dugu horietako bakoitzerako: helburuaren deskribapena, tratatutako datuen tipologia, profilen erabilerari buruzko informazioa, tratamenduari buruzko beste informazio garrantzitsu bat, eta CaixaBank Taldeko beste erakunde batzuekin batera egindako tratamenduak diren ala ez.

A. Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betetzeko tratamendua

Helburua: Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudiak gure jarduerari ezartzen dizkion neurriak hartzea.

Zure datuak tratatuko ditugu helburu hauetarako:

- Bezeroen inguruan behar bezalako eginbide- eta ezagutza-neurriak betetzea ahalbidetzen diguten informazioa eta dokumentazioa biltzea.
- Ematen diguzun informazioa egiaztatzea.
- Erantzukizun publikoko karguak betetzen ari zaren edo bete dituzun egiaztatzea.
- Arrisku-maila bat esleitzea. Maila horren arabera, kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudian adierazitako arreta egokiko neurriak aplikatuko zaizkizu.
- CaixaBank Payments & Consumer-en bidez exekutatzen diren eragiketak aztertzea.
- Sozietateekin duzun harremana eta, beharrezkoa bada, haien jabetza-egituran duzun kontrol-posizioa egiaztatzea.
- Finantza Titulartasunen Fitxategian zure informazioa hilerok jakinaraztea eta eguneratzea. Fitxategi hori Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen (SEPBLAC) Zerbitzu Exekutiboaren erantzukizuna da.

Tratatutako datuen tipologia:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:
 - Arriskua ebaluatzeko datuak edo *scoringa* (6.2.B epigrafean definitutako tratamendua).
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Administrazioaile, kargu funtzional eta sozietate-loturei buruzko datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Profilen erabilera: Profil bat sortuko dugu soilik kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudiak gure jarduerari ezarritako neurriak aplikatzeko.

- **Helburua:** Kapitalak zuritu edo terrorismoa finantzatu dezaketen eragiketak kontratatzea eragozteko.
- **Ondorioak:** Profilak gure bezeroen eragiketak kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko modukoak diren ala ez zehazten laguntzen duten tresnak dira. Horri esker, eragiketa onartu edo ez erabaki dezakegu.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek tratatuko dituzte zure

datuak, tratamendu horretarako erantzunkidetasunean.

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- VidaCaixa, S.A. de seguros y reaseguros
- BPI Vida e Pensões – Companhia de Seguros, S.A.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management SGIIC, S.A.U
- Buildingcenter, S.A.U.
- Livingcenter Activos Inmobiliarios, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.
- CaixaBank Asset Management Luxembourg, S.A.
- BPI Gestão de Ativos, SGOIC, S.A.
- Banco BPI, S.A.
- Bankia Habitat, S.L.U.
- Puerto Triana, S.A.U.

Jarraian, erantzunkidetasunaren arabera gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak aurkituko dituzu: www.caixabank.es/empresasgrupo

B. Nazioarteko zigor eta kontraneurri finantzarioen politiketatik eratorritako betebeharrak betetzeko tratamendua

Helburua: Europar Batasuneko eta Espainiako Erresumako zehapen-programetan eta finantzako kontraneurrietan gure jarduerari ezarritako neurriak hartzea.

Neurri horiek betetzeko, CaixaBank Payments & Consumer-ek egiaztatuko du zehapen-programa horietan sartuta dauden pertsona edo erakundeek zerrendaren batean agertzen zaren ala ez.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Nazioarteko zigorrei dagozkien datuak

Bestelako informazio garrantzitsua: CaixaBank Payments & Consumer-etik kontsultatuko ditugun nazioarteko finantza-zehapenen programak honako hauek hartutakoak dira:

- Erresuma Batuko Office of Financial Sanctions Implementation (OFSI) of His Majesty's Treasury (HMT)
- U. S. Department of the Treasury 's Office of Foreign Assets Control (OFAC), gure interes legitimoan oinarrituta. Interes hori 6.4.A atalean zehaztu dugu.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- VidaCaixa, S.A. de seguros y reaseguros
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management SGIIC, S.A.U
- Buildingcenter, S.A.U.
- Livingcenter Activos Inmobiliarios, S.A.U.
- Puerto Triana, S.A.

- Bankia Habitat, S.L.U
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Corporación Hipotecaria Mutua, S.A.U., Establecimiento Financiero de Crédito
- Banco BPI, S.A.
- BPI Gestão de Ativos, SGOIC, S.A.
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.
- CaixaBank Asset Management Luxembourg, S.A.
- OpenWealth, S.A.U.

Jarraian, erantzunkidetasunaren arabera gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak aurkituko dituzu: www.caixabank.es/empresasgrupo

C. Kexak eta erreklamazioak artatzeko tratamendua.

Helburua: CaixaBank Payments & Consumer-i zuzendutako kontsultei eta erreklamazioei erantzutea, finantza-erakunde gisa aplikatzen zaigun araudiaren arabera. Azaroaren 22ko 44/2002 Legeaz ari gara, bai eta ECO/73/2004 Aginduaz ere, gure bezero eta erabiltzaileentzat bezeroaren arretarako zerbitzua eskuragarri izatera behartzen duena.

Datuak babesteko araudiak, halaber, gure Datuen Babeserako Ordezkarari egin diezazkiokezun erreklamazioei erantzutera eta zure datu pertsonalen gaineko eskubide ariketak kudeatzera behartzen gaitu.

CaixaBank Payments & Consumer-ek zure datuak tratatuko ditu helburu hauetarako:

- CaixaBank Payments & Consumer Bezeroaren Arreta Zerbitzuan zure kexak eta erreklamazioak jasotzea.
- Aurreikusitako epean erantzutea.
- Zure datu pertsonalei eta CaixaBank Payments & Consumer-eko Datuak Babesteko ordezkarari egiten dizkiozun kontsultei buruzko zuzenbideko ariketei erantzutea.
- Kontrol-agintaritzekin lankidetzan aritzea, adibidez Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Gaitasun juridikoari buruzko datuak
- Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorrek
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Berezko nabigazio-datuak
- Kreditu-informazio sistemen datuak
- CIRBE datuak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

D. Gainbegiratzea eta barne-kontrola

Helburua: Gure jarduera barrutik gainbegiratzea. Gobernu korporatiboari eta arriskuen kudeaketari buruzko araudia betetzen den egiaztatzeko egiten da gainbegiratze hori.

Aldizkako kontrola egingo dugu, barneko arauak eta prozedurak betetzen direla egiaztatzeko. Produktuak eta zerbitzuak merkaturatzean eta kontratatzean dauden arriskuak arintzeko egingo dugu hori. Baita gure ohiko eragiketetan arriskuak arintzeko ere.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Gaitasun juridikoari buruzko datuak
- Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorrak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Berezko nabigazio-datuak
- Datu geografikoak
- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik edo kanpoko iturrietatik lortutako datuak
- Hirugarrenen nabigazio-datuak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

E. Egitekoak, informazio-eskakizunak edota enbargoak kudeatzea

Helburua: Gure bezero bati buruzko informazio- edo enbargo-eskaerei erantzutea. Eskaera horiek CaixaBank Payments & Consumer-era bidaltzen dituzte administrazioek, agintariek, polizia-kidegoek edo auzitegi eskudunek.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorrak
- Gaitasun juridikoari eta komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Sarbide-iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako informazioak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

F. Finantza-erregulazioko informazioa

Helburua: CaixaBank Payments & Consumer-en finantza-erakunde gisa duen jarduerari buruzko txostenak egitea. Txosten horiek CaixaBank Payments & Consumer-en jarduera gainbegiratzen duten erakunde eta agintaritza eskudunei zuzentzen zaizkie.

Horretarako, beharrezkoa da datu pertsonalak tratatzea eta informazioa erakunde erregulatzaile eta

gainbegiraleei bidaltzea, bakoitzak ezartzen dituen arau espezifikoaren arabera. Erakunde horien artean daude Espainiako Bankua, Europako Banku Erakundea (EBA) edo Europako Banku Zentrala, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen eskakizunen arabera.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jardura profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

G. Kontabilitatearen kudeaketa

Helburua: CaixaBank Payments & Consumer-en kontabilitatea kudeatzea.

Betebehar hori betetzeko, datu pertsonal batzuk tratatu behar dira eta informazioa erakunde erregulatzaile eta gainbegiraleei bidali, esaterako Espainiako Bankuari, kreditu-erakundeei buruzko 10/2014 Legeak eskatzen duenari jarraituz.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikazio-datuak
- Lanbide-jarduerari buruzko datuak
- Kontratazio-datuak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

6.4 CAIXABANK PAYMENTS & CONSUMER-EN INTERES LEGITIMOAN OINARRITUTAKO TRATAMENDUAK

Tratamendu horiek CaixaBank-en edo hirugarren baten interes legitimoak lortzeko egiten dira. Gure interesak zure interesen edo oinarritzko eskubide eta askatasunen gainetik ez badaude egingo ditugu, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 6.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Tratamendu horiek egin aurretik, zure eskubideen eta gure interes legitimoaren arteko haztapen bat egingo dugu. Tratamendua gure interesa zure eskubide eta askatasunen gainetik dagoen kasuetan baino ez dugu egingo. Noiznahi kontsulta dezakezu tratamendu baten interes legitimoaren gaineko haztapenaren analisia, zure kontsulta delegado.proteccion.datos@caixabank.com helbide elektronikora bidalita.

Gogorazten dizugu interes legitimoan oinarritutako tratamenduen aurka egin dezakezula. CaixaBank Payments & Consumer-ek eta, hala badagokio, enpresa erantzunkideek, egoera pertsonalen bat edo zure datuak tratatzeari uzteko arrazoiren bat kontuan hartu behar dutela uste baduzu, modu errazean eta doan eska dezakezu 4. atalean aipatutako kanalen bidez.

Jarraian, tratamendu horiek xehatuko ditugu, (A)tik (H)rako hurrenkeran. Hau adierazten dugu horietako bakoitzerako: CaixaBank-en interes legitimoa, helburuaren deskribapena, tratatutako datuen tipologia, hala badagokio, profilen erabilerari buruzko informazioa, tratamenduari buruzko beste informazio garrantzitsu bat eta CaixaBank Taldeko beste enpresa batzuekin erantzunkidetasun-erregimenean egindako tratamenduak diren ala ez.

A. OFSI eta OFAC nazioarteko zehapen eta kontrako neurri finantzarioen politikak

Interes legitimoa: CaixaBank Payments & Consumer-ek eta atal honetan aipatutako enpresa erantzunkideek zure datuak tratatu behar dituzte Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko zehapenei eta finantza-neurriei buruzko nazioarteko arauak betetzeko. Hori beharrezkoa da herrialde horietan eragiketak eta negozioak egin ahal izateko.

Helburua: Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako agintariek eskatzen dituzten zehapenei eta finantza-

kontrolei buruzko arauak betetzea.

Arau horiek betetzeko, enpresa erantzunkideek aztertuko dute zure izena Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan murrizketak dituzten pertsonen edo erakundeen zerrendetan dagoen.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikazio- eta harreman-datuak.
- Nazioarteko zigorrei dagozkien datuak.

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Datuen aurka egiteko eskubidea:** CaixaBank Payments & Consumer-ek egoera pertsonalen bat edo zure datuak tratatzeari uzteko arrazoiren bat kontuan hartu behar duela uste baduzu, modu errazean eta doan eska dezakezu, 4. atalean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- VidaCaixa, S.A. de Seguros y Reaseguros.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management SGIIC, S.A.U.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.U.
- Buildingcenter, S.A.U.
- Livingcenter Activos Inmobiliarios, S.A.U.
- Puerto Triana, S.A.
- Bankia Habitat, S.L.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Banco BPI, S.A.
- BPI Gestão de Ativos, SGOIC, S.A.
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.
- CaixaBank Asset Management Luxembourg, S.A.
- OpenWealth, S.A.U.

Jarraian, erantzunkidetasunaren arabera gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak aurkituko dituzu hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

B. Iruzurraren prebentzioa.

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: CaixaBank Payments & Consumer-i edo haren bezeroei galera ekonomikoak edo izen onekoak eragiten dizkieten iruzurrak prebenitzea.

Helburua: Egin aurretik, eragiketa edo jokabide maltzurak saihesteko beharrezko neurriak hartzea. Helburua da, halaber, CaixaBank Payments & Consumer-i edo haren bezeroei iruzurra eragin diezaioketen eragiketa edo jokabide susmagarrien bidez sortutako ondorioak itzultzea, halakorik gertatuz gero.

Zure datuak tratatuko ditugu helburu hauetarako:

- Bezeroen nortasuna egiaztatzea, informaziorako iruzurrezko sarbideak edo operatiboak saihesteko.
- Gure sistemetan egiten diren kontratazioak eta eragiketak berrikustea eta aztertzea, gure bezeroak edozein kanaletako iruzurretik babesteko eta zibererasoak saihesteko.
- Zure nortasuna eta ematen dizkiguzun identifikazio-dokumentuen baliozkotasuna

konsultatzea. Aurkeztu diguzun dokumentua zurea dela berretsiko dugu. Segurtasun-
indar eta -kidegoen nazioko eta nazioarteko datu-baseekin alderatuko dugu. Baita
antzeko erakundeekin ere, hala nola INTERPOL (Polizia Kriminalaren Nazioarteko
Erakundea). Beste pertsona batek zu ordeztu jokatzea bezalako lekua hartze-iruzurretik
babesteko egiten dugu.

- PAYGUARD iruzurra prebenitzeko zerbitzuan barne hartutako informazioa konsultatzea,
iruzurrezko kontuak detektatzeko, eta behar denean zure iruzurrezko eragiketak
jakinarazteko.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jardura profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioen datuak
- Berezko nabigazio-datuak
- Datu geografikoak
- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:
 - Arriskua ebaluatzeko datuak edo scoringa (6.2.B epigrafean definitutako tratamendua).
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
- Confirma datuak

Profilen erabilera: Zure eragiketa- eta ohiko jardura-datuarekin profil bat egingo dugu. Profil hori
iruzur-saiakeraren adierazle izan daitezkeen ohiz kanpoko egoerak identifikatzeko soilik erabiliko
dugu.

- **Profilaren helburua:** Erabilitako profilaren helburua da ohikoak ez diren operatiboak
edo elkarreraginak, edo zure portaera-profiletik urrundutakoak identifikatzea, zeinak
iruzur saiakerak edo informazioa modu iruzurrezko batean atzitzeko saiakerak izan
daitezkeen.

Ondorioak: Profilek iruzurrezko eragiketak identifikatzen laguntzen digute. Haren
erabilerak neurriak aplikatzea dakar, eragiketa zehatz-mehatz berrikustetik hasi eta
hura blokeatu edo ukatzera arte.

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Erabaki automatizatuak:** Iruzurra prebenitzeko, erabaki automatizatuak dakartzaten
tratamenduak egingo ditugu. Horri esker, iruzurrezko eragiketak detektatu ahal ditugu.
Egin ostean ezeztatu ezin diren eragiketetan, hala nola berehalako ordainketetan edo
transferentzietan, erabaki automatizatuak eragiketa egitea eragotz dezake, iruzurra
izan daitekeela detektatzen badu. Beraz, ezingo duzu eragiketa hori egin. Eragiketa
berriro eskatu ahal izango duzu CaixaBank Payments & Consumer-ekin zuzenean
harremanetan jarritik politika honen 4. epigrafean informatutako kanalen bidez, non
analisiak ez duen erabaki automatizaturik jasotzen.
- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments &
Consumer-ek eta, hala badagokio, enpresa erantzunkideek zure datuak erabiltzeari
utzi beharko lioketela arrazoi pertsonalen batengatik, doan eta erraz eska dezakezu,
4. atalean adierazitako kanalen bidez.
- **Confirma fitxategia:** CaixaBank Payments & Consumer erakundeak Confirma
fitxategian parte hartzen du, finantzaketa-eskaeretan iruzurrak saihesten laguntzeko.
Fitxategi hori Confirma Sistemas de Información, S.L.k kudeatzen du (egoitza soziala:
Industriaren etorbidea 18, TRES CANTOS (28760) MADRIL).

Confirma fitxategiaren helburua kontratazioetan iruzur-zantzurik dagoen egiaztatzea
da. Eskaerako zure datu pertsonalak partekatzen ditugu, beste erregistro batzuekin
alderatzeko eta egon daitezkeen arazoak detektatzeko.

Legezko oinarria Confirma fitxategiari atxikitako erakundeen interes legitimoa da, iruzurrak, galera ekonomikoak eta legezko ez-betetzeak prebenitzeko.

Confirma fitxategia kontsultatzen dugu, iruzurrak saihesteko tresna egokia delako, eta modu orekatuan egiten dugu: Parte hartzen duten erakundeentzako onurak zure pribatutasunean duen inpaktua gainditzen du. Hori espero duzunaren barruan sartzen da, ohiko praktika baita finantzaketa bat eskatzean edo gure harreman komertzialean. Gainera, neurri teknikoak eta segurtasunekoak erabiltzen ditugu zure datuak ondo babesteko eta zuretzat edozein arazo saihesteko.

CaixaBank Payments & Consumer-i finantzaketa eskatzeko ematen dizkiozun datu pertsonalak Confirma fitxategiarekin partekatuko dira. Zure eskaera erakunde parte-hartzaileek erregistratutakoekin alderatzeko eta kontratazioan egon daitezkeen iruzurrak antzemateko egiten dugu. Confirma fitxategiari atxikitako beste erakunde batzuek ere ikusi ahal izango dituzte datu horiek, baina helburu bererako bakarrik.

Zure datu pertsonalak gordetzeko gehienezko epea bost urtekoa izango da.

Confirma Fitxategiaren Erregelamenduari atxikitako erakundeak dira zure datuen erantzunkideak. Confirma fitxategiaren Erregelamenduari atxikitako erakundeen zerrenda www.confirmasistemas.es webgunean kontsulta dezakezu, eta informazio gehigarria eta erantzunkidetasun-akordioaren funtsezko alderdiak www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos.com webgunera zuzenduz eska ditzakezu.

Datuak babesteko legearen arabera, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, zuzen zaitez Confirma Sistemas de Información, S.L.-ra, lehenago adierazi dugun webgunean. Halaber, erreklamazio bat aurkez dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.aepd.es). Confirma Sistemas de Información, S.L. erakundeak Datuak Babesteko ordezkari bat du, eta harekin harremanetan jar daiteke postaz, dpo@confirsisistemas.es helbidean, Confirma fitxategiaren pribatutasunari buruzko edozein kontsulta egiteko.

- **PAYGUARD Iruzurraren Prebentziorako Zerbitzua:** CaixaBank PAYGUARD iruzurraren prebentziorako zerbitzura atxikita dago, eta bertan herrialdeko erakunde finantzario nagusiek parte hartzen dute eta Sociedad Española de Sistemas de Pago, S.A.k (Iberpay) kudeatzen du.

Zerbitzu horrek kontuen arteko mugimenduekin erlazionatutako iruzur-mailak murriztea du helburu, horretarako bezeroen kontu korrontean edo aurrezki-kontuan egindako eragiketa susmagarri edo iruzurrezkoak detektatu, ikertu, kontrolatu eta salatzearen bitartez. Eragiketa horiei eragin diezaieken iruzurraren aurkako borrokako interes legitimoa da tratamenduaren oinarri juridikoa.

CaixaBank-ek barne hartu ahal izango ditu PAYGUARD Iruzurraren Prebentziorako Zerbitzuan eragiketa susmagarria edo iruzurrezkoa detektatu den kontuko titularren IBAN zenbakiari eta nortasun-datuei dagozkien datuak. Kontsultatu ahal izango duzu erakunde parte-hartzaileen zerrenda eguneratua hemen: <https://www.iberpay.es/es/servicios/servicios/prevenci%C3%B3n-del-fraude/>

Datuak, gehienez, hogeita hamar egunez gordeko dira eragiketa susmagarrien kasuan, eta urtebetez egiaztatutako iruzurrezko eragiketen kasuan.

PAYGUARD Iruzurraren Prebentziorako Zerbitzuko erakunde parte-hartzaileak dira zure datuen tratamenduaren erantzunkideak. Erantzunkidetasun akordioaren funtsezko alderdiak eska ditzakezu mezu bat bidaliz www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos helbidera, eta datuen tratamenduari dagozkion eskubideak erabil ditzakezu 4. epigrafean adierazitako edozein kanal erabilita. Eskubideak baliatzea eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean erreklamazioak aurkeztea.

- **FRAUDFENSE Iruzurraren prebentziorako zerbitzua:** CaixaBank FRAUDFENSE Iruzurraren Prebentziorako Zerbitzura atxikita dago, herrialdeko finantza-erakunde nagusietako batzuek parte hartzen dute bertan, eta FrauDFense, S.A.k kudeatzen du.

Zerbitzu horrek bezeroen operatiboarekin erlazionatutako iruzur-mailak murriztea du helburu, horretarako bezeroen kontu korrontean edo aurrezki-kontuan zein banku digitaletako eragiketetan egindako eragiketa susmagarri edo iruzurrezkoak detektatu, ikertu, kontrolatu eta salatzearen bitartez. Tratamenduaren oinarri juridikoa dira

CaixaBank-en interes legitimoa bere operatiboan iruzurraren aurka borrokatzea eta hura prebenitzea.

CaixaBank-ek barne hartu ahal izango ditu FRAUDFENSE Iruzurra Prebenitzeko Zerbitzuan: IBAN zenbakia buruzko datuak, iruzurrezko eragiketa identifikatuari dagozkion datuak, iruzurrezko eragiketa egin den gailuaren datuak, eta eragiketa susmagarria edo iruzurrezkoa detektatu den kontuaren titularraren identifikazio-datuak. FRAUDFENSEn parte hartzen duten erakundeek zerrenda eguneratua hemen kontsulta dezakezu: <https://916087356-1.servicio-online.net/sobre-nosotros1/nuestros-partners>.

FRAUDFENSE Iruzurra Prebenitzeko Zerbitzuan datuak 12 hilabetez mantenduko dira gehienez jota, iruzurrezko eragiketa berretsien kasuan, eta, ondoren, blokeatuta mantendu ahal izango dira preskripzio-epe aplikagarriak amaitzen diren arte.

FRAUDFENSE Iruzurra Prebenitzeko Zerbitzuko erakunde parte-hartzaileak dira zure datuen tratamenduaren erantzunkideak. Erantzunkidetasun-akordioaren funtsezko alderdiak eska ditzakezu mezu bat bidalita www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos edo protecciondedatos@fraudfense.com helbideetara.

Halaber, datuen tratamenduari dagozkion eskubideak erabil ditzakezu 4. atalean ("Eskubideak erabiltzea eta erreklamazioak aurkeztea" adierazitako edozein kanal erabilita Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean edo protecciondedatos@fraudfense.com helbidera zuzenduta.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo erakundeek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Global Payments Moneytopay, EDE, S.L.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.U.

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioaren funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo

C. Kreditu-informazio sistemen kontsulta eta komunikazioa, finantzaketa eskatzen duten produktuen eskaera eta ondorengo kudeaketaren esparruan.

CaixaBank Payments & Consumeren interes legitimoa: Kuotak geroratuta ordaintzea dakarten produktuen edo zerbitzuen eskatzaile edo titularren ordainketa-gabetzeak eta atzerapenak saihestea.

Helburua:

- Kuoten ordainketa geroratuta dakarten produktuen edo zerbitzuen eskatzaileek edo titularrek itundutako kuotak ordain ditzaketen jakitea.
- Aurretik eman dugun dirua itzultzea dakarten produktu edo zerbitzuen titularrek dirua itzuli dezaketen jakitea.
- Indarrean dauden eragiketen jarraipena eta kudeaketa egitea.
- Ez-ordaintzeak prebenitzea eta kudeatzea. Zure datuak tratatuko ditugu helburu hauetarako:
 - **Informazioa kontsultatzea:** Finantzaketa dakarren eragiketa bat eman aurretik, eta, ondoren, arriskuaren jarraipena eta kudeaketa egiteko, kredituei buruzko informazio-sistema hauek kontsultatuko ditugu (ondare-kaudimenaren eta kredituaren fitxategiak): Asnef Fitxategia eta Badexcug Fitxategia.
 - **Zure datu pertsonalak jakinaraztea:** Gurekin dituzun diruzko betebeharren bat ordaintzeari uzten badiuzu, ez-ordaintzearen datuak kreditu-informazioko sistemiei jakinarazi ahal izango dizkiegu. Indarrean dagoen araudia betez egingo dugu beti.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak

- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Kreditu-informazio sistemen datuak

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer-ek eta, hala badagokio, enpresa erantzunkideek zure datuak erabiltzeari utzi beharko lioketela arrazoi pertsonalen batengatik, doan eta erraz eska dezakezu, 4. atalean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamenduaren arduraduna, kreditu-informazioko sistemen kontsultari dagokionez. CaixaBank Payments & Consumer eta kaudimen-fitxategiak (Asnef eta Badexcug) erantzunkideak dira kreditu-informazioko sistemetarako komunikazioan. Datu-base hauekin nola jar zaitezkeen harremanetan adierazten dizugu:

- Asnef fitxategia: Asnef Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito. Posta-kutxa 10546, 28080 Madrid (sac@equifax.es).
- Badexcug fitxategia: Apartado de correos 1188, 28108 Alcobendas (badexcug@experian.com).

D. Harremanetarako datu gehigarriak lortzea ez-ordainketak kudeatzeko.

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa ez-ordainketa egoeretan zorra berreskuratzea da, eta horretarako bezeroen harremanetarako datuak eguneratuta izan behar dira.

Helburua: Bezeroen harremanetarako datu gehigarriak jasotzea, kontratu-betebeharrak betetzen ez badituzu haiekin harremanetan jartzeko.

Harremanetarako datu gehigarriak zerrenda publikoetatik lortzen dira, esaterako orri zurietatik, orri horietatik eta Lleida.net-etik. Baita Equifax, Detectives edo zorra berreskuratzeko agentziak bezalako zerrenda pribatuetatik ere. Hori aplikatu beharreko araudia betez egingo dugu beti.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatutako ditugun datuen tipologiak hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer-ek zure datuak erabiltzeari utzi behar diola arrazoi pertsonalen batengatik, doan eta erraz eska dezakezu, 4. atalean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

E. Eredu matematikoak sortzea

Interes legitimoa: Gure erakunde-jarduera ahalik eta modu eraginkorrean diseinatzea, antolatzea eta hobetzea. Hori lortzeko, informazioa modu aurreratuan aztertzen lagunduko diguten algoritmo matematikoak sortu behar ditugu.

Helburua: Eredu estatistikoak eta matematikoak sortzea eta mantentzea. Horiekin kalkulu eta analisi konplexuak egin daitezke, politika honetan deskribatutako tratamenduak aplikatu ahal izateko.

Tratatutako datuen tipologiak: Tratamendu bakoitzean identifikatu diren datuak erabiltzen dira. Ahal den guztietan, datuak pertsona batekin ez lotzeko teknikak aplikatzen ditugu (anonimizazioa edo pseudonimizazioa). Horrela bermatzen dugu titularren eskubideei ez eragitea eta emaitza formula matematikoak edo algoritmoak izatea.

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer-ek zure datuak erabiltzeari utzi beharko liokeela arrazoi pertsonalen batengatik, doan eta erraz eska dezakezu, 4. atalean adierazitako kanalen bidez.
- **Datu tratamendu osagarria:** Helburua ez da bezeroen datuak banaka tratatzea. Beharrezko tratamendua da, baina bigarren mailakoa, formula matematikoak sortzeko. Horregatik, anonimizazio-teknikak erabiltzen dira eta informazioa minimizatzen da. Tratamendu horiek ez dute ondorio indibidualik bezeroentzat.

Tratamenduaren arduraduna: Eredu matematikoak CaixaBank-ek politika honen arabera egindako tratamenduetan oinarritzen direnean, CaixaBank izango da arduraduna. Erantzunkidetasun-erregimenean egiten badira, jatorrizko tratamenduaren araubide bera aplikatuko da. Hemen kontsulta ditzakezu enpresa erantzunkideen xehetasunak eta akordioak: <https://www.CaixaBank.es/enpresa-taldea>.

F. Oinarrizko merkataritza-profilean oinarritutako merkataritza-komunikazioak

Nori aplikatzen zaio tratamendu hori?: Zure datuekin tratamendu hori burutuko dugu, baldin eta:

- ez badizkiguzu adierazi 6.1.A., 6.1.B. eta 6.1.C. ataletan deskribatutako merkataritza-tratamenduei buruz dituzun lehentasunak;
- horri buruzko komunikazio pertsonalizatu bat bidali izan badizugu; eta,
- ez baduzu tratamenduaren aurka egin.

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: Zorroko produktuen eta zerbitzuen merkaturatzea sustatzea eta gure bezeroak fidelizatzea.

Helburua: Gurekin kontratatuta dituzun antzeko produktu eta zerbitzuei buruzko komunikazio komertzialak zure eskura jartzea. Hori zure datuekin egingo dugun oinarrizko profil komertzial batean oinarrituta egingo dugu.

Tratatutako datuen tipologiak:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea eta jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza eta nortasun-agiria.
- **Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak:** zure lan-jarduera edo jarduera profesionala, diru-sarrerak edo ordainsariak.
- **Kontratazio-datuak:** kontratatutako edo eskatutako produktu eta zerbitzuak (berezkoak edo hirugarrenenak), kontratatutako produktu edo zerbitzuaren titularraren, baimenduaren edo ordezkariaren izaera, eta finantzaketa-eragiketen gaineko informazioa eta mugimenduak.
- **Oinarrizko datu finantzarioak:** uneko saldoak eta produktu eta zerbitzuen historikoak, eta kontratatutako produktu eta zerbitzuen ordainketa-historia.
- **Eredu estatistikoak exekutatzetik lortutako datuak:** eredu matematikoak erabiltzetik lortutako emaitzak bezeroen datuetan erabiltzen ditugu, eta aukera ematen digute iruzurraren aurka borrokatzeko, zure kontsumo-ohiturak, lehentasunak edo kontratazio-joerak ondorioztatzeko, gure araudi-betebeharrak betetzeko eta zure produktu edota zerbitzuen operatiboak kudeatzeko.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - **Arrisku edo scoring-aren ebaluaziorako datuak:** kuoten bidezko finantzaketa- edo ordainketa-eragiketetan, ordaintzeko edo ez ordaintzeko den ahalmena edo arrisku-mugak ondorioztatuko ditugu, zure datuekin kalkulatzeko diren eredu matematiko estatistikoak aplikatuta (6.2.B epigrafean zehaztutako tratamendua)
- **Datu demografikoak eta sozioekonomikoak:** pertsona jakinei lotu gabeko datu

estatistikoak dira, eremu geografiko, adin-tarte edo jarduera profesionaleko sektoreei lotutakoak; datu horiek bezeroen informazioarekin erlazionatzeko erabiliko ditugu.

Profilen erabilera: oinarrizko profil komertziala egingo dugu, lehen adierazi ditugun datuekin soilik:

- **Profilaren helburua:** Zure ustez interesgarriak izan daitezkeen produktuak eta zerbitzuak ondorioztatuko ditugu. Produktu horiek eskaintza komertzial generikoen ordez eskainiko dizkizugu.
- **Ondorioak:** CaixaBank Payments & Consumer-ek merkaturatutako produktu eta zerbitzuei buruzko eskaintza pertsonalizatuak jarriko ditugu zure eskura.

Atal honetan zehaztutako datuekin bakarrik egingo dugu profila. Profil hori ez dugu erabiliko inolako produktu edo zerbitzuren kontratazioa ukatzeko, ezta kreditu-mugak zehazteko ere.

Datuen tratamendu hori ez onartzeak ez du eragotzi, mugatu edo baldintzatzen gure produktu eta zerbitzuen katalogo osorako sarbidea, eskura izango baituzu beti.

Edozein produktu edo zerbitzuren kontratazioa eskatzen baduzu, zure eskaera ebaluatuko dugu gure prozeduren arabera. Tratamendu hori uko egiteak ez du eraginik izango ebaluazio honetan.

Datuen tratamendu hori uko egiteak ere ez ditu eragotziko zurekin harremanetan jartzea zure produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko.

- **Logika:** Oinarrizko merkataritza-profil hori "Tratatutako datuen tipologia" atalean adierazitako datuetatik abiatuta kalkulatzen da. Azken hamahiru hilabeteetako datuak bakarrik erabiliko ditugu.

Datu horiei antzeko ezaugarriak dituzten bezeroengan iraganean ikusitako portaeretatik lortutako formula matematikoak aplikatzen dizkiegu. Horrekin, bezeroaren kontsumorako joera ondorioztatzen dugu. Formula matematiko horien bidez, bezeroaren profilaren amaierako emaitzan tratatutako datuetako bakoitzaren garrantzia zehaztu daiteke. Horren azken emaitza bezeroak produktu edo zerbitzu batean duen interesaren probabilitatea da.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:**

Tratamendu hori egitea uka zenezake, erraz eta doan, esteka honen bidez: https://www.caixabank.es/apl/particulares/gdpr/index_es.html? empresa = 6 & derecho = oposicion comunicaciones

4. atalean adierazitako kanalen bidez ere uko egin diezaiokezu.

Jakinarazten dizugu, tratamenduari uko egiten badiozu, tratamendua egiteari utziko diogula, arrazoirik eman beharrik gabe.

- **Ordaintzeko gaitasunaren aldez aurreko egiaztapena:** Kuotak ordaintzea edo finantzaketa dakarten produktuak edo zerbitzuak eskaintzen dizkizugunean, zure ordaintzeko gaitasuna egiaztatuko dugu aldez aurretik. 6.2.B. puntuan azaldutakoaren arabera egingo dugu.

Horren helburua da kreditu-muga eta itzulketa-epe egokiak eskaintzea, zure finantza-egoerari buruz dugun ezagutzara egokituta. Hori guztiori, Espainiako Bankuak finantzaketa-produktuen eskaintzan eskatutako erantzukizun-printzipioen arabera eta kreditu-erakundearen eta mailegu arduratsuaren zuhurtziazko ikuskapenari eta kaudimenari buruzko araudiari jarraituz egingo dugu.

- **Tratamenduaren indarraldia:** Tratamendu hori 2022ko urriaren 10etik aurrera sartuko da indarrean. Nolanahi ere, informazio-komunikazio pertsonalizatua jasoko duzu aldez aurretik.

Tratamendu hori egiteari utziko diogu, beste betekizunik gabe, honako bi egoera hauetako edozeinetan:

- CaixaBank Taldeko erakundearen 6.1 (A, B eta C) ataletan deskribatutako merkataritza-tratamenduetarako baimena eskatzeko zurekin harremanetan jartzen garenean, bai baimena ematen badiguzu, bai uko egiten badiezu.

- Tratamenduari uko egiten badiozu.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

G. CaixaBank Payments & Consumer-en eskubide eta interesen defentsa, bide judicial edo administratibotik

CaixaBank Payments & Consumeren interes legitimoa: CaixaBank Payments & Consumer-en eskubideak eta interesak defendatzea, bide judizialek zein administratibotik. CaixaBank Payments & Consumer, babes judicial eraginkorra izateko eskubidean.

Helburua: CaixaBank Payments & Consumer alderdi demandatzailea edo demandatua den prozedura administratibo edo judicialak kudeatzea.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jardura profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorrak
- Gaitasun juridikoari eta komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Interesdunarekin mantendutako komunikazioen datuak
- Sarbide-iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako informazioak

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Egoera bereziren bat edo tratamendua ez egitea justifikatzen duen beste arrazoren bat izanez gero, modu errazean eta doan eska dezakezu, 4. atalean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

H. Estatistika-informazioa egitea

Enpresa erantzunkideen interes legitimoa: Negozio-prozesuek nola funtzionatzen duten jakiteko informazio estatistiko multzo bat sortzea. Hori interes legitimotzat jotzen da, beren jardura hobetzen eta aztertzen laguntzen dielako.

Helburua: Helburua da datu pertsonal jakin batzuk konbinatzea, informazio **erabat anonimizatu eta taldekatua** sortzeko. Horrela, negozio-prozesuen ikuspegi globala lortzen da, pertsonarik identifikatu ezin den moduan.

Tratatutako datuen tipologiak:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Lanbide-jarduerari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- CaixaBank-eko akzioduna izatearen edo ez izatearen datuak
- Berezko nabigazio-datuak
- Datu geografikoak

- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak

Bestelako informazio garrantzitsua:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Egoera bereziren bat edo tratamendua ez egitea justifikatzen duen beste arrazoiren bat izanez gero, modu errazean eta doan eska dezakezu, 4. atalean adierazitako kanalen bidez.
- **Datu tratamendu osagarria:** Datu pertsonalen tratamendua informazio estatistikoa lantzeko beharrezkoak diren tratamendu-eragiketetara mugatzen da, eta agregazio-tekniken bidez egiten da, informazioaren behin betiko anonimizaziora iritsi arte.

Tratamenduaren erantzunkideak: Honako enpresa hauek erantzunkidetasunean tratatuko dituzte zure datuak, tratamendu hori egiteko:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Global Payments Moneytopay, EDE, S.L.
- Comercia Global Payments Entidad de Pago, S.L

Erantzunkidetasunean gauzatuak tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

7. Datuen hartzaileak

Datuen tratamenduaren arduraduna eta erantzunkideak

CaixaBank Payments & Consumer-en bezero zarelako tratatzen ditugun datuak CaixaBank Payments & Consumer-etik tratatzen ditugu. Tratamenduak erantzunkidetasunean egiten badira, CaixaBank Taldeko enpresek egiten dituzte, tratamendu bakoitzerako adierazi dugunaren arabera.

Agintari eta erakunde ofizialak

Egiten ditugun transakzioei buruzko informazioa beste herrialde batzuetako agintari edo erakunde ofizialei ematera behartuta egon gaitezke. Europar Batasunaren barruan nahiz kanpoan dauden herrialdeak izan daitezke. Kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudia betetzeko egiten dugu hori. Baita Espainiako Bankuak eta Europako Banku Zentralak egiten dituzten kreditu-erakundeek zuzentzeko gainbegiratzea betetzeko ere.

Halaber, betebeharrak horri lotuta egon daitezke ordainketa-sistemak eta zerbitzu teknologikoen emaileak, haiekin harremanak mantentzen ditugunean eta transakzioak gauzatzeko datuak igortzen dizkiegunean.

Gure jarduerari buruzko txostenak egitera eta erakunde arautzaile eta gainbegiraleei bidaltzera behartuta gaude. Araudiak eskatzen duen kontabilitate-informazioa bidaltzera ere behartuta gaude.

Diru-betebeharren betetze edo ez-betetzeari buruzko fitxategiak

CaixaBank Payments & Consumer-ekin dituzun zorrak ordaintzen ez badituzu, ez-betetzeari buruzko zure datuak jakinarazi ahal izango dizkiegu kreditu-informazioko sistema hauei:

- > Asnef fitxategia: Asnef Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito. Apartado de correos 10546, 28080 Madrid (sac@equifax.es)
- > Badexcug fitxategia: Apartado de correos 1188, 28108 Alcobendas (badexcug@experian.com)

Fitxategi horietan datuak babesteko dituzun eskubideak erabil ditzakezu adierazi dizkizugun helbideetan.

Datuen jakinarazpena zerbitzuak azpikontratatzeari

Batzuetan, datu pertsonalak atzi ditzaketan zerbitzuen emaileetara jotzen dugu.

Zerbitzu-emaile horiek berme egokiak dituzte datuak tratatzeko. CaixaBank Payments & Consumer-ek modu arduratsuan hautatzen ditu. Gainera, baldintza espezifikoak bete behar dituzte, zerbitzuak datuak tratatzea eskatzen badu.

Gainera, CaixaBank Payments & Consumer erakundeak mekanismoak ditu hornitzaileek datuak babesteko araudia betetzen dutela bermatzeko. Era berean, CaixaBank-en printzipio korporatiboak bete behar ditu. Printzipio horiek Administrazio Kontseiluak onartu ditu, eta Politika honen 1. paragrafoan aipatzen dira.

Mota honetako zerbitzuak utzi ditzakegu zerbitzu-emaleen esku:

- > Backoffice finantzarioaren zerbitzuak
- > Administrazio-laguntzako zerbitzuak
- > Auditoretza- eta aholkularitza-zerbitzuak
- > Zerbitzu juridikoak eta aktiboak eta ordaindu gabekoak berreskuratzeko zerbitzuak
- > Ordainketa zerbitzuak
- > Marketin- eta publizitate-zerbitzuak
- > Inkesta zerbitzuak
- > Call center zerbitzuak
- > Zerbitzu logistikoak
- > Segurtasun fisikoaren zerbitzuak
- > Zerbitzu informatikoak (sistemen eta informazioaren segurtasuna, zibersegurtasuna, informazio-sistematik, arkitektura, ostatua, datuak prozesatzea)
- > Telekomunikazio zerbitzuak (ahotsa eta datuak)
- > Inprimaketa, gutuneratze, posta-bidalketa eta mezularitza zerbitzuak
- > Informazioa (digitala eta fisikoa) babesteko eta suntsitzeko zerbitzuak
- > Eraikinak, instalazioak eta ekipamenduak mantentzeko zerbitzuak

8. Datuak gordetzeko epeak

Kontratu-harremanak izateko gordetzea

Ezarri ditugun kontratu-harremanak indarrean jarraitzen duten bitartean erabiliko ditugu zure datuak.

Baimenean edo interes legítimoan oinarritutako tratamenduetarako baimenak gordetzea

Zure baimenean oinarritutako datu-tratamenduak egingo ditugu, zuk errefusatu arte. CaixaBank Taldeko erakundeekin dituzun produktu- eta zerbitzu-kontratu guztiak ezeztatzen badituzu, baina bere garaian eman zenizkigun baimenak baztertzen ez badituzu, guk automatikoki ondorioz gabe utziko ditugu bezero izateari uzten diozunetik. Bidezko interesean oinarritutako datu-tratamenduak egingo ditugu. Ados ez bazaude, aurka egin dezakezu eta tratatzeari utziko diogu zure aurkakotasuna onartzen dugunean.

Datuak lege-betebeharrak betetzeko eta erreklamazioak egin, gauzatu eta defendatzeko gordetzea

Gurekin duzun kontratu-harremana amaitu ondoren, zure datuak baino ez ditugu gordeko, legezko betebeharrak betetzeko. Zure datuak ere gordeko ditugu, egin ditzakezun ekintzen preskripzio-epean erreklamazioei erantzuteko.

Datuei neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatuko dizkiegu, helburu horietarako bakarrik erabiltzen direla ziurtatzeko.

Datuak suntsitzea

Zure datuak suntsituko ditugu gure arteko kontratu-harremanen ondoriozko ekintzen preskripzio-epeak amaitzen direnean.

9. Europako Esparru Ekonomikotik kanpo egindako datuen transferentziak

CaixaBank Payments & Consumer-en zure datuak tratatzen ditugu Europako Esparru Ekonomikoaren barruan, eta, oro har, esparru horretan kokatzen diren edo babes-maila egokia duten herrialdeetako zerbitzu-hornitzaileak kontratatzen ditugu.

Aipatutako bi kasuetatik kanpo datu pertsonalak tratatzen dituzten zerbitzu-hornitzaileak eta preskriptoreak behar baditugu, modu seguru eta legitimoan egiten dutela ziurtatuko dugu.

Horretarako, berme egokiak eskatzen dizkiegu, datuak babesteko araudian ezarritakoaren arabera. Hau da, Europako Esparru Ekonomikoaren babes bera bermatzen duten arau korporatibo lotesleak izatea edo Europar Batasuneko klausula tipoak erabiltzea. Berme horien kopia bat eska dezakezu hemen: www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos.

10. Erabaki automatizatuak

Erabaki automatizatuak zure datuen tratamendu automatizatu batean baino ez dira oinarritzen (gizaki batek esku hartu gabe), eta ondorio juridikoak eragin diezazkizukete edo nabarmen eragin diezazukete.

Politika honetako 6. atalean, erabaki automatizatuak hartzen dituzten tratamenduen berri ematen dizugu.

Horrez gain, gure kontratu-harremanetan erabaki automatizatuak erabiliko bagenitu (adibidez, produktu jakin baten kontratazioa ukatzea), horren berri emango dizugu eskatzen diguzun produktuaren edo zerbitzuaren kontratu-dokumentazioan bertan, baita erabakia hartzeko logikaren berri ere.

Era berean, une horretan, giza esku-hartzea lortzeko, zure ikuspuntua adierazteko eta erabakia aurkaratzeko eskubidea erraztuko dizugu.

11. Berrikuspena

Pribatutasun-politika hau berrikusiko dugu informatuta mantentzeko beharrezkoa denean. Adibidez, arau eta irizpide berriak argitaratzen direnean edo tratamendu berriak egiten ditugunean.

Baldin eta aldaketa garrantzitsuak gertatzen badira Pribatutasun-politika honetan. Ohiko bideetatik ere emango dizugu informazioa.

Azken berrikuspenaren data:

2026ko apirilaren 30a